

AKTA, 2005EKO IRAILAREN 22KOA

Organoa: Udal batzarra

Deialdia: lehenengoa

Eguna: 2005/09/22

Ordua: Hasiera 19:30 – Amaiera 20:30

Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak

Alkatea:

Santiago Garmendia Olano

Zinegotziak:

Santiago Fermin Garmendia Gorostidi

Jose Ignacio Irastorza Garmendia

Joseba Mirene Garmendia Ustoa

Mikel Garmendia Suquia

Idazkaria:

Maria Soledad Alcayaga Garmendia

AZTERGAIA:

1.- AURREKO BILERETAKO AGIRIAK ONESTEKO PROPOSAMENA

2.- ALKATE DEKRETUEN BERRI EMATEA

3.- BAKE EPAILEA IZENDATZEKO PROPOSAMENA

4.- LANGILEEN LAN BALDINTZAK

5.- ORDENANTZA FISKALAK ALDAKTZEKO PROPOSAMENA

**6.- GAINZAKO SARE ELEKTRIKOA HOBETZEKO TENSA S.A.RI
ESLEITUTAKO OBREN LIKIDAZIOA ONESTEKO PROPOSAMENA**

1.- AURREKO BILERETAKO AGIRIAK ONESTEKO PROPOSAMENA

Ikusirik, udal batzarrak, aho batez erabaki du, ondorengo bileretako agiriak onestea:

- > 2005/03/09,
- > 2005/06/13,
- > 2005/06/17,
- > 2005/08/11,
- > 2005/09/15.

2.- ALKATE DEKRETUEN BERRI EMATEA

Ondorengo zenbakiekin udal honetako alkateak emandako dekretuen berri ematen da puntu honetan:

2005/24tik 2005/36ra.

3.- BAKE EPAILEA IZENDATZEKO PROPOSAMENA

Ikusirik herri honetako Bake Epailea eta Bake Epaile ordezkoa izendatzeko izapidatutako espediente orokorra.

Izanik, espedientearen izapidaketan legeak agintzen duen prozedura jarraitu dela eta egindako deialdi publikoan ondorengo bi eskaera aurkeztu direla, Bake Epailearen kargurako:

- 1.- OLATZ IMAZ MENDIZABAL
- 2.- BAKARNE ELORZA ALCAYAGA

Izanik, Bakarne Elorza Alcayagak, ondo betetzen dituela herri honetako Bake Epailearen eginkizunak eta bere perfila egokiena dela, udal honen iritziz kargua bere gain hartzeko.

Izanik ez dela eskaerarik aurkeztu Bake Epaile ordezkoaren kargurako.

Elkarrizketa labur baten ondoren, Kontuen Komisio berezia, Administrazioa eta Gizarte Ongizate batzordeak, hil honen 19an egindako bileran, aho batez, diktaminatutakoarekin bat etorriz, udal batzarrak, bera osatzen duen 5 batzarkideen aldeko botuekin, erabaki du:

LEHENENGOA.- Bakarne Elorza Alcayaga aukeratzea, Gaintzako Bake Epaille kargurako. Hauek izanik bere xehetasun pertsonalak: N.A.N. zenb.: 73219865-D. Adina: 28 urte. Bizilekua. Alotzpe Etxea- Zaldibia. Telefonoa: 605 74 71 00. Lanbidez tekniko komertziala.

BIGARRENA.- Hartutako erabakia interesatuari jakinaraztea legeak agintzen duen eran.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau, Tolosako Dekano Epaileri eta Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiko Lehendakariari zuzentzea, ekainaren 7ko 3/1995 Erregelamenduaren 7. artikulua ezartzen dituen baldintzak betez, izendaketa eratzeko ondorioetarako, aipatu erregelamenduko 8. artikulua araberak.

4.- LANGILEEN LAN BALDINTZAK

2005 ekitaldirako proposatutako udal langilegoaren lan baldintzen azterketa egin ondoren.

Ikusirik gaiari dagokion aurrekariak eta bereziki, Eudelen Batzorde Eragileak 2005eko otsailaren 24an egindako bileran, Euskadiko Toki Administrazioaren zerbitzura dauden langileen gastuak handitzeari buruz hartu zuen erabakia.

Kontuan izanik, bidezkoz jotzen dela, 2005eko soldaten igoera ebatzi aurretik, 2004ko soldatei, inguruko udalek egindako igoera aplikatzea, bereziki, Zaldibikoak, izan ere, langile bat baino gehiago konpartitzen dituzte bi udal hauek.

Elkarrizketa labur baten ondoren, Kontuen Komisio berezia, Administrazioa eta Gizarte Ongizate batzordeak, hil honen 19an egindako bileran, aho batez, diktaminatutakoarekin bat etorritik, udal batzarrak, bera osatzen duen 5 batzarkideen aldeko botuekin, erabaki du:

2004ko lansariei %0,9 igoera orokorra egitea, urtarrilaren 1etik aurrera.

Langileen ordezkari sindikalekin egiten ari diren negoziazioen zain eta horien kontura, eta ondorioak 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera izanik, udal honen zerbitzura dauden langileen ordainsariei igoera orokorra egitea, kontzeptu guztietan, hain zuzen ere, 2004ko ekitaldiko ordainsariak %2,5 igoz.

5.- ORDENANTZA FISKALAK ALDATZEKO PROPOSAMENA

Udal ordenantza fiskalak aldatzeko proposamena eztabaidan jartzen da.

Aipatu proposamenak ondorengo aldaketak eta zerga eta tasa berriak eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen den ordenantza fiskala onestea du helburua:

➔ **ZERGAK:**

.- Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Gaineko Zerga: Egungo tarifak 2004ko irailetik 2005eko irailerako K.P.I.n arabera igotzea, 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera.

.- Eraikuntza, Instalazio eta Obren Gaineko Zerga ezartzea, 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera, ondorengo tarifak eta dagokion ordenantza arautzailea onartuz:

1.- Eraikuntza berriak (babes ofizialeko etxebizitzak salbu) Aurrekontuaren %3.

2.- Babes ofizialeko etxebizitza berriak: Aurrekontuaren %1,5.

➔ **TASAK: ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI EDO JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK**

- Ur hornidura: Egungo tarifak 2004ko irailetik 2005eko irailerako K.P.I.n arabera igotzea, 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera.

- Zaborrak bildu eta iraitzeko zerbitzua: Egungo tarifak 2004ko irailetik 2005eko irailerako K.P.I.n arabera igotzea, 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera.

- Ura hartzeko baimena: 40 euroko tasa ezartzea, 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Aurreko proposamena, aho batez, alde diktaminatu zuen udal honetako Kontuen Komisio berezia, Administrazioa eta Gizarte Ongizate batzordeak, hil honen 19an egindako bileran.

Hori horrela izanik, gaia eztabaidatu ondoren, udal batzarrak, aho batez, erabaki du onestea gaiari buruzko proposamena, bilerako agiriaren eranskinean ezartzen direlarik aldatu eta ezarritako tarifak, hala nola onetsitako eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ordenantza arautzailearen testua.

A) ALDAKETAK

1) ZERGAK

TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

TARIFAK ETA KOEFIZIENTEA

Ibilgailuaren potentzia eta mota

Tarifak

A) Ibilgailuak:

9 zaldi fiskaletik beherakoak	19,82
9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak	39,63
12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak	66,07
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak	92,49
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	118,91
20 zaldi fiskaletik gorakoak	145,34

B) Autobusak:

21 plaza baino gutxiagokoak	91,57
21etik 50 plazatara bitartekoak	130,41
50 plaza baino gehiagokoak	163,02

C) Kamioiak:

1.000 kg.tik beherako karga erabilgarria dutenak	46,48
1.000tik 2.999 kg.ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	91,57
2.999tik 9.999 kg.ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	130,41
9.999 kg.tik gorako karga erabilgarria dutenak	163,02

D) Traktoreak:

16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	19,42
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak	30,53
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	91,57

E) Trakzio mekanikozko ibilgailuek arrastran eramandako atoi eta erdi atoiak:

1.000 baino gutxiagoko eta 750 kg. baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	19,42
1.000tik 2.999 kg.ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	30,53
2.999 kg.tik gorako karga erabilgarria dutenak	91,57

F) Bestelako ibilgailuak:

Ziklomotoreak	4,86
125 cc.ra bitarteko motozikletak	4,86
125 cc.tik 250 cc.ra bitarteko motozikletak	8,32
250 cc.tik 500 cc.ra bitarteko motozikletak	16,65
500 cc.tik 1.000 cc.ra bitarteko motozikletak	33,30
1.000 cc.tik gorako motozikletak	66,59

2) TASAK

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI EDO JARDUERA **ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK**

2.1) Ur hornidura

<u>Kontsumoak</u>	<u>Tarifa</u>
Kontsumitutako m ³ bakoitzeko	0,48.-€

Tarifa aplikatzeko arauak :

A. Kontsumoa egon edo ez egon hiruhilero 5 m³tako gutxienekoa ordainduko da.

B. Prezioa hiru hilero kobratuko da ordainagiri bidez.

2.2) Zaborrak bildu eta iraitzeko zerbitzua Tarifa

Euroak / Seihilekoa

Etxebizitzak, hutsak barne	19,82
Tabernak, Jatetxeak, elkarteak, aterpetxeak etabar.	39,63

Tarifa aplikatzeko arauak :

A. Prezioa seihilero kobratuko da ordainagiri bidez.

B) EZARTZEAK

1) ZERGAK

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA

Tarifa

B.1.1.- Eraikuntza berriak (babes ofizialeko etxebizitzak salbu)	Aurrekontuaren %3
B.1.2.- Babes ofizialeko etxebizitza berriak	Aurrekontuaren %1,5

2) TASAK

Tarifa

Ura hartzeko baimena	40,00.-€
----------------------	----------

C) ORDENANTZA ARAUTZAILEA

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.

Udal honek, aipaturiko zerga horri buruzko Foru Arau berezian aurreikusitakoa betez, Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zerga ezarri eta ordainarazten du, Ordenantza honetan agertzen den moduan.

2. Artikulua.

Ordenantza udalerrri osoan aplikatuko da.

II. EGITATE ZERGAGARRIA

3. Artikulua.

Hirigintza-lanetarako baimena behar duten eraikuntza berriei egokituko zaie egitate zergagarria, baimen hori eduki nahiz ez eduki, baldin eta hori ematea Udalari badagokio.

III. SUBJEKTU PASIBOAK

4. Artikulua.

1.- Honako hauek izango dira, zergadun gisa, subjektu pasiboak: pertsona fisiko eta juridikoak eta Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan aipatzen diren erakundeak, eraikuntza-lanak egiten diren higiezinaren jabe direnean, baldin eta obraren jabe baldin badira; gainerako kasuetan obraren jabe dena hartuko da zergaduntzat.

2.- Udaleko Zerga-administrazioaren aurrean behar den moduan egiaztatzen ez bada obraren jabea obra egiten ari den higiezinaren jabea ez den beste pertsona edo entitate bat dela, jabea azken hori dela joko da.

5. Artikulua.

1.- Zergadunaren ordezkotako subjektu pasiboak hauek izango dira; dagozkien baimenak eskatu edo eraikuntzak egiten dituztenak, zergadunak berak ez badira.

2.- Nolanahi ere, Udal Administrazioak zergadun den pertsonaren edo entitatearen izena eta helbidea eskatu ahal izango dizkio zergadunaren ordezkotari.

IV. ZERGA-OINARRIA

6. Artikulua.

1.- Subjektu pasiboak edo izaera hori duenak bere gain hartzen duen eraikuntza edo obraren kostu erreal eta efektiboak osatuko du zerga-oinarria.

2.-Aurreko zenbakian xedatutakoaren ondorioetarako, behin-behineko likidazioari dagokion exekuzio-aurrekontuaren barruan honakoak sartuko dira: materialen kostua, proiektuaren eta zuzendaritzaren ordainsari teknikoak, industri mozkina, gastu orokorrak eta alde zuzeneko lanak eta lan osagarriak.

3.- Udal baimenik ez duten eraikuntza, instalazio eta obrak direnean, zerga-oinarria Udal Administrazioak ezarriko du.

V. ZERGA-KUOTA

7. Artikulua.

Zerga-oinarriari Eranskin honen B) atalean adierazitako tarifa aplikatuz aterako da zerga honen kuota.

VI. SORTZAPENA

8. Artikulua.

Eraikuntza-lanak hasten diren unean sortuko da zerga, beharrezko baimena lortu ez bada ere.

VII. KUDEAKETA.

9. Artikulua.

Aginduzko baimena ematerakoan behin-behineko likidazioa egingo da eta interesatuek aurkeztu duten aurrekontuaren arabera zehaztuko da zerga-oinarria, aurrekontu horrek dagokion elkargo ofizialaren oniritzia badu betiere; bestela, zerga-oinarri hori udal teknikariek zehaztuko dute, proiektuaren kostuaren kalkulua kontuan hartuta.

10. Artikulua.

Dagokion baimena eman ondoren hasierako proiektua aldatzen bada, aurrekontu berri bat aurkeztu beharko da behin-behineko likidazio berri bat egin ahal izateko hasierako aurrekontuaren zenbatekoa gainditzen duen kopuruagatik.

11. Artikulua.

1.- Benetan egindako eraikuntzak, instalazioak edo obrak eta horien kostu erreal efektiboa ikusi ondoren, Udal Administrazioak, behar bezalako administrazio-egiaztapena egin eta, hala behar bada, zerga-oinarria aldatuko du; gero, behin betiko likidazioa egingo du eta subjektu pasiboari dagokion kopurua ordaintzeko eskatu, edo hala badagokio, itzuli egingo dio.

2.- Aurreko atalean xedatutakoaren ondorioetarako, obra amaitu edo obra behin-behinekoz onartu ondoko hilabetean egoera horren berri eman beharko du Udal Administrazioak eskuratuko dion inprimaki batean; horrekin batera obrako zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria ere aurkeztu beharko du, dagokion elkargo profesionalak onartua, horretarako aukera dagoenean behintzat, eta ziurtagiri horretan obraren kostua osoa azalduko da, proiektuaren eta zuzendaritzaren eskubide fakultatiboak, industria-mozkina eta horien ondorioz sor daitezkeen gainerako guztiak barne direla.

12. Artikulua.

Zergaren likidazioaren ondorioetarako, administrazioaren isiltasunez emandako baimenek berariaz emandako baimenen eragin berbera izango dute.

13. Artikulua.

Ordenantza honetan arautzen den zergaren likidazio, bilketa eta ikuskaritzari dagokionez eta, aldi berean, zerga arloko arau-hausteen kalifikazioari eta kasu bakoitzean ezarri beharreko zigorren zehaztapenari dagokionez, Zergen Foru Arau Orokorrean aurreikusitakoa aplikatuko da.

14. Artikulua.

Baimenaren titularrak baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak egingo ez dituela adierazten badu horretarako berariaz egindako idazki baten bidez, Udalak egindako behin-behineko likidazioa itzuli edo erabat baliogabetuko du.

15. Artikulua.

Baimena mugaegunera iritsi ondoren Udalak egindako likidazioa itzuli edo baliogabetu egingo du, titularrak hura berritzeko eskatu eta Udalak onartzen ez badu behintzat.

VIII. AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, eta dagokion tarifak 2005eko irailaren 22an behin betiko onartuta geratu dira; 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera jarriko dira indarrean eta hauek aldatu edo baliogabetzeko erabakia hartu arte egongo dira indarrean.

6.- GAINTZAKO SARE ELEKTRIKOA HOBETZEKO TENSA S.A.RI ESLEITUTAKO OBREN LIKIDAZIOA ONESTEKO PROPOSAMENA

Ikusirik, Tensa S.A. Montajes Eléctricos enpresak udal honi igorritako EU 9/0248/05 zenbakidun faktura, Gaintzako sare elektrikoak jartzeko eta transformadore berria instalatzeko lanei buruzkoa. Aipatu faktura 28.884.-€urokoa da.

Ikusirik gaiari buruzko aurrekariak eta bereziki, udal batzar honek 2005eko abuztuaren 11n egindako bileran hartutako erabakia, aurreko lanak hartzea onartuz, 2004ko azaroaren 24ean sinatutako kontratupean.

Halaber, ikusirik udal honetako Kontuen Komisio berezia, Administrazioa eta Gizarte Ongizate batzordeak, hil honen 19an egindako bileran gai honetaz diktaminatutakoa.

Ikusirik, Pedro Etxaniz Rebaque, goi mailako arkitektoak egun honetan egindako txostena, aurreko atalean aipatutako faktura ordaintzea alde informatuz.

Kontuan hartuta obrak hartu eta Iberdrolari emanda daudela dagoeneko.

Kontuan hartuta obra horiek esleitu aurreko aurrekariak, izan ere, Gaintzako hiriguneko hirigintza garapenak behartu zuen bereziki udal hau obra horiek egitea, bere kostua zuzeneko onuradunei ezarriz, haiekin gurutzatutako dokumentuek dioten bezala.

Kontuan hartuta 13 direla zuzeneko onuradunak eta horien artean banatu beharra dagoela Gaintzako argindarraren berrikuntza obren kostu osoa, hori ondorengo gastuak osatzen dutelarik:

- > **C. Zizurkil:** Sare elektrikoa eta transformadore berria jartzeko homigoia lanak.
- > **Tensa S.L.:** Sare elektrikoa eta transformadore berria jartzeko elektrizitate lanak.
- > **Iberdrola:** Loturako instalazioak eta horniduraren kontratazioa eta tentsio ertaineko sarean, instalazioen lotura/eteneko lanak, tentsioan lanak eta etenaldietarako gestioak.

Gaia eztabaidatu ondoren, udal honetako Kontuen Komisio berezia, Administrazioa eta Gizarte Ongizate batzordeak, hil honen 19an egindako bileran diktaminatutakoarekin bat etorritik, udal batzarrak, ahobatez, erabaki du;

- A) Onestea Tensa S.L.ren EU 9/0248/05 zenbakidun faktura, 28.884.-€urokoa, Gaintzako sare elektrikoa eta transformadore berria jartzeko elektrizitate lanei buruzkoa.
- B) Lan horien zuzeneko onuradunei; hau da herriko planeamenduko arau subsidiarioetako 1, 2 eta 3 unitate exekuzioetako etxebizitzak sustatzaileei, Gaintzako sare elektrikoa eta transformadore berria jartzeko lanen kostu osoa ezartzea, etxebizitza hainbeste zatitan banaturik; hau da 13 zatitan, izan ere 1 exekuzio unitatean 6 etxebizitza aurreikusita badaude ere, 5 bakarrik eraikitzeke proiektua baitago.

Besterik gabe bilera amaitu da, goian adierazitako orduan.

MARIA SOLEDAD ALCAYAGA GARMENDIA, GAINZAKO UDALEKO IDAZKARI KONTUHARTZAILEAK, ZIURTATU DU:

Herri honetako udal batzarrak, 2005eko irailaren 22an egindako bileran, beste batzuen artean, ondorengo erabakia hartu zuela:

“4.- LANGILEEN LAN BALDINTZAK

2005 ekitaldirako proposatutako udal langilegoaren lan baldintzen azterketa egin ondoren.

Ikusirik gaiari dagokion aurrekariak eta bereziki, Eudelen Batzorde Eragileak 2005eko otsailaren 24an egindako bileran, Euskadiko Toki Administrazioaren zerbitzura dauden langileen gastuak handitzeari buruz hartu zuen erabakia.

Kontuan izanik, bidezkoztat jotzen dela, 2005eko soldaten igoera ebatzi aurretik, 2004ko soldatei, inguruko udalek egindako igoera aplikatzea, bereziki, Zaldibikoak, izan ere, langile bat baino gehiago konpartitzen dituzte bi udal hauek.

Elkarrizketa labur baten ondoren, Kontuen Komisio berezia, Administrazioa eta Gizarte Ongizate batzordeak, hil honen 19an egindako bileran, aho batez, diktaminatutakoarekin bat etorritik, udal batzarrak, bera osatzen duen 5 batzarkideen aldeko botuekin, erabaki du:

2004ko lansariei %0,9 igoera orokorra egitea, urtarrilaren 1etik aurrera.

Langileen ordezkari sindikalekin egiten ari diren negoziazioen zain eta horien kontura, eta ondorioak 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera izanik, udal honen zerbitzura dauden langileen ordainsariei igoera orokorra egitea, kontzeptu guztietan, hain zuzen ere, 2004ko ekitaldiko ordainsariak %2,5 igoz”.

Gaintzan, 2005eko irailak 22.

Stua: Marisol Alcayaga Garmendia

MARIA SOLEDAD ALCAYAGA GARMENDIA, GAINZAKO UDALEKO IDAZKARI KONTUHARTZAILEAK, ZIURTATU DU:

Herri honetako udal batzarrak, 2005eko irailaren 22an egindako bileran, beste batzuen artean, ondorengo erabakia hartu zuela:

“5.- ORDENANTZA FISKALAK ALDAKTZEKO PROPOSAMENA

Udal ordenantza fiskalak aldatzeko proposamena eztabaidan jartzen da.

Aipatu proposamenak ondorengo aldaketak eta zerga eta tasa berriak eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen den ordenantza fiskala onestea du helburua:

→ ZERGAK:

.- Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Gaineko Zerga: Egungo tarifak 2004ko irailetik 2005eko irailerako K.P. I.n arabera igo, 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera.

.- Eraikuntza, Instalazio eta Obren Gaineko Zerga ezarri, 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera, ondorengo tarifak eta dagokion ordenantza arautzailea onartuz:

1.- Eraikuntza berriak (babes ofizialeko etxebizitzak salbu: Aurrekontuaren %3.

2.- Babes ofizialeko etxebizitza berriak: Aurrekontuaren %1,5.

→ TASAK: ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI EDO JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK

.- Ur hornidura: Egungo tarifak 2004ko irailetik 2005eko irailerako K.P.I.n arabera igo, 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera.

.- Zaborrak bildu eta iraitzeko zerbitzua: Egungo tarifak 2004ko irailetik 2005eko irailerako K.P.I.n arabera igo, 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera.

.- Ura hartzeko baimena: 40 euroko tasa ezarri, 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Aurreko proposamena, aho batez, alde diktaminatu zuen udal honetako Kontuen Komisia berezia, Administrazioa eta Gizarte Ongizate batzordeak, hil honen 19an egindako bileran.

Hori horrela izanik, gaia eztabaidatu ondoren, udal batzarrak, aho batez, erabaki du onestea gaiari buruzko proposamena, bilerako agiriaren eranskinean ezartzen direlarik aldatu eta ezarritako tarifak, hala nola onetsitako eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ordenantza arautzailen testua.

A) ALDAKETAK

1) ZERGAK

TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

TARIFAK ETA KOEFIZIENTEA

Ibilgailuaren potentzia eta mota

Tarifak

A) Ibilgailuak:

9 zaldi fiskaletik beherakoak	19,82
9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak	39,63
12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak	66,07
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak	92,49
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	118,91
20 zaldi fiskaletik gorakoak	145,34

B) Autobusak:

21 plaza baino gutxiagokoak	91,57
21etik 50 plazatara bitartekoak	130,41
50 plaza baino gehiagokoak	163,02

C) Kamioiak:

1.000 kg.tik beherako karga erabilgarria dutenak	46,48
1.000tik 2.999 kg.ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	91,57
2.999tik 9.999 kg.ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	130,41
9.999 kg.tik gorako karga erabilgarria dutenak	163,02

D) Traktoreak:

16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	19,42
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak	30,53
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	91,57

E) Trakzio mekanikozko ibilgailuek arrastran eramandako atoi eta erdi atoiak:

1.000 baino gutxiagoko eta 750 kg. baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	19,42
1.000tik 2.999 kg.ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	30,53
2.999 kg.tik gorako karga erabilgarria dutenak	91,57

F) Bestelako ibilgailuak:

Ziklomotoreak	4,86
125 cc.ra bitarteko motozikletak	4,86
125 cc.tik 250 cc.ra bitarteko motozikletak	8,32
250 cc.tik 500 cc.ra bitarteko motozikletak	16,65
500 cc.tik 1.000 cc.ra bitarteko motozikletak	33,30
1.000 cc.tik gorako motozikletak	66,59

2) TASAK

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI EDO JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK

2.1) Ur hornidura

<u>Kontsumoak</u>	<u>Tarifa</u>
Kontsumitutako m ³ bakoitzeko	0,48.-€

Tarifa aplikatzeko arauak :

A. Kontsumoa egon edo ez egon hiruhilero 5 m³tako gutxienekoa ordainduko da.

B. Prezioa hiru hilero kobratuko da ordainagiri bidez.

2.2) Zaborrak bildu eta iraitzeko zerbitzua Tarifa

Euroak / Seihilekoa

Etxebizitzak, hutsak barne	19,82
Tabernak, Jatetxeak, elkarteak, aterpetxeak etabar.	39,63

Tarifa aplikatzeko arauak :

A. Prezioa seihilero kobratuko da ordainagiri bidez.

B) EZARTZEAK

1) ZERGAK

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA

Tarifa

B.1.1.- Eraikuntza berriak (babes ofizialeko etxebizitzak salbu)	Aurrekontuaren %3
B.1.2.- Babes ofizialeko etxebizitza berriak	Aurrekontuaren %1,5

2) TASAK

Tarifa

Ura hartzeko baimena	40,00.-€
----------------------	----------

C) ORDENANTZA ARAUTZAILEA

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

III. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.

Udal honek, aipaturiko zerga horri buruzko Foru Arau berezian aurreikusitakoa betez, Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zerga ezarri eta ordainarazten du, Ordenantza honetan agertzen den moduan.

2. Artikulua.

Ordenantza udalerrri osoan aplikatuko da.

IV. EGITATE ZERGAGARRIA

3. Artikulua.

Hirigintza-lanetarako baimena behar duten eraikuntza berriei egokituko zaie egitate zergagarria, baimen hori eduki nahiz ez eduki, baldin eta hori ematea Udalari badagokio.

IX. SUBJEKTU PASIBOAK

4. Artikulua.

1.- Honako hauek izango dira, zergadun gisa, subjektu pasiboak: pertsona fisiko eta juridikoak eta Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorreko 33. artikuluan aipatzen diren erakundeak, eraikuntzalanak egiten diren higiezinaren jabe direnean, baldin eta obren jabe baldin badira; gainerako kasuetan obraren jabe dena hartuko da zergaduntzat.

2.- Udaleko Zerga-administrazioaren aurrean behar den moduan egiaztatzen ez bada obraren jabea obra egiten ari den higiezinaren jabea ez den beste pertsona edo entitate bat dela, jabea azken hori dela joko da.

5. Artikulua.

1.- Zergadunaren ordezeko subjektu pasiboak hauek izango dira; dagozkien baimenak eskatu edo eraikuntzak egiten dituztenak, zergadunak berak ez badira.

2.- Nolanahi ere, Udal Administrazioak zergadun den pertsonaren edo entitatearen izena eta helbidea eskatu ahal izango dizkio zergadunaren ordezekoari.

X. ZERGA-OINARRIA

6. Artikulua.

1.- Subjektu pasiboak edo izaera hori duenak bere gain hartzen duen eraikuntza edo obraren kostu erreal eta efektiboak osatuko du zerga-oinarria.

2.-Aurreko zenbakian xedatutakoaren ondorioetarako, behin-behineko likidazioari dagokion exekuzio-aurrekontuaren barruan honakoak sartuko dira: materialen kostua, proiektuaren eta zuzendaritzaren ordainsari teknikoak, industri mozkina, gastu orokorrak eta alde zuzeneko lanak eta lan osagarriak.

3.- Udal baimenik ez duten eraikuntza, instalazio eta obrak direnean, zerga-oinarria Udal Administrazioak ezarriko du.

XI. ZERGA-KUOTA

7. Artikulua.

Zerga-oinarriari Eranskin honen B) atalean adierazitako tarifa aplikatuz aterako da zerga honen kuota.

XII. SORTZAPENA

8. Artikulua.

Eraikuntza-lanak hasten diren unean sortuko da zerga, beharrezko baimena lortu ez bada ere.

XIII. KUDEAKETA.

9. Artikulua.

Aginduzko baimena ematerakoan behin-behineko likidazioa egingo da eta interesatuek aurkeztu duten aurrekontuaren arabera zehaztuko da zerga-oinarria, aurrekontu horrek dagokion elkargo ofizialaren

oniritzia badu betiere; bestela, zerga-oinarri hori udal teknikariek zehaztuko dute, proiektuaren kostuaren kalkulua kontuan hartuta.

10. Artikulua.

Dagokion baimena eman ondoren hasierako proiektua aldatzen bada, aurrekontu berri bat aurkeztu beharko da behin-behineko likidazio berri bat egin ahal izateko hasierako aurrekontuaren zenbatekoa gainditzen duen kopuruagatik.

11. Artikulua.

1.- Benetan egindako eraikuntzak, instalazioak edo obrak eta horien kostu erreal efektiboa ikusi ondoren, Udal Administrazioak, behar bezalako administrazio-egiaztapena egin eta, hala behar bada, zerga-oinarria aldatuko du; gero, behin betiko likidazioa egingo du eta subjektu pasiboari dagokion kopurua ordaintzeko eskatu, edo hala badagokio, itzuli egingo dio.

2.- Aurreko atalean xedatutakoaren ondorioetarako, obra amaitu edo obra behin-behinekoz onartu ondoko hilabetean egoera horren berri eman beharko du Udal Administrazioak eskuratuko dion inprimaki batean; horrekin batera obrako zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria ere aurkeztu beharko du, dagokion elkargo profesionalak onartua, horretarako aukera dagoenean behintzat, eta ziurtagiri horretan obren kostua osoa azalduko da, proiektuaren eta zuzendaritzaren eskubide fakultatiboak, industria-mozkina eta horien ondorioz sor daitezkeen gainerako guztiak barne direla.

12. Artikulua.

Zergaren likidazioaren ondorioetarako, administrazioaren isiltasunez emandako baimenek berariaz emandako baimenen eragin berbera izango dute.

13. Artikulua.

Ordenantza honetan arautzen den zergaren likidazio, bilketa eta ikuskaritzari dagokionez eta, aldi berean, zerga arloko arau-hausteen kalifikazioari eta kasu bakoitzean ezarri beharreko zigorren zehaztapenari dagokionez, Zergen Foru Arau Orokorrean aurreikusitakoa aplikatuko da.

14. Artikulua.

Baimenaren titularrak baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak egingo ez dituela adierazten badu horretarako berariaz egindako idazki baten bidez, Udalak egindako behin-behineko likidazioa itzuli edo erabat baliogabetuko du.

15. Artikulua.

Baimena mugaegunera iritsi ondoren Udalak egindako likidazioa itzuli edo baliogabetu egingo du, titularrak hura berritzeko eskatu eta Udalak onartzen ez badu behintzat.

XIV. AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, eta dagokion tarifak 2005eko irailaren 22an behin betiko onartuta geratu dira; 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera jarriko dira indarrean eta hauek aldatu edo baliogabetzeko erabakia hartu arte egongo dira indarrean”.

Gaintzan, 2005eko irailak 22.

Stua: Marisol Alcayaga GArmendia

